

MENDEBALDEKO EUSKARA

EREMUA

Bizkaia, Deba ibar gehiena eta Arabako Aramaio ibarra sartzen dira gaur egun euskalki honetan. Dena dela, mendebaleko ezaugarri batzuek eremu zabalagoa daukate: Urolaldera, Goierriera eta Nafarroako Burunda ibarrera ere heldu dira. Aspaldikoak dira ezaugarri horiek, ziurrenera antzina Araban sortutakoak edo, behintzat, handik zabaldutakoak. Beste ezaugarri batzuen eremua txikiagoa da: Bizkai barruan gauzatzen dira eta, jakina, Bizkaian bertan sortutakoak dira.

AZPIEUSKALKIAK ETA HIZKERAK

Mendebaleko euskara ez da homogenea: azpieuskalki bi eta zortzi hizkera nagusi ageri dira. Garbia da azpieuskalki bien arteko aldea, nahiz eta oharkabean egiten den batetik besterako bidea: Busturialdeko hizkerek, iparraldean, eta Otxandio-Oleta-Ubide aldekoek, hegoaldean, egiten dute bien arteko lotura. Azpieuskalki bi horiek sartaldea eta sortaldea izendatuko ditut.

Sartaldeko azpieuskalkian hizkera multzo nagusi bi nabari dira: ipar-sartaldekoa eta hego-sartaldekoa. Ipar-sartaldekoan hiru hizkera daude: Uribe Kostakoa, Mungialdekoa eta Txorierrikoa. Hego-sartaldekoan ez dago hainbesteko alderik: Arratia ibarra, Zeberio, Orozko, Arrankudiaga, Arakaldo eta Galdakao daude bertan. Bi hizkera multzo nagusi horien artean Nerbioi ibarrekoa dago. Bilbon, Etxebarrin, Zaratamon, Basaurin, Arrigorriagan eta Ugaon hitz egin izan da. Oso ahulduta dago gaur egun.

Sortaldeko azpieuskalkian beste hizkera hauek daude: Lea-Artibai eta Durangaldekoa, Debagoienekoa eta Deba ibarreko erdigunekoa. Lea-Artibaikoa eta Durangaldekoa oso antzekoak dira, itsasbazterreko hizkerak –Ondarroa eta Lekeitio– nortasun handikoak badira ere. Debagoienari dagokionez, Leintz ibarra (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga), Oñati eta Aramaio sartzen dira. Deba ibarreko erdigunean, berriz, Antzuola, Bergara, Elgeta, Soraluze, Ermua eta Eibar daude.

Deba ibarreko iparraldeko herrietan oso hizkera berezia egiten da. Alderdi horrek mendebaleko eta erdialdeko euskalkien arteko lotura egiten du. Elgoibar, Mendaro eta Mutriku daude bertan. Deba bera eta, jakina, Itziar erdialdeko euskalkian sartu behar dira.

EZAUGARRI NAGUSIAK

Morfologiaren alorrari dagozkio euskalki honetako bereizgarri gehienak. Lexikoan ere hitz multzo hazia da berezia. Ikus ditzagun arlo guztiak banan-banan:

Fonologia

Bokalen sailean gertakari bi nabarmentzen dira:

1. -a batekin amaitzen diren hitzei artikulua gehitzen zaienean, -a + a > -ea egin da. Horren adibide dira neskea 'neska', burrukea 'borroka' tankerako hitzak. Gero, hizkeren arabera, -ea horretatik -e (neske), -ia (neskia), -ie (neskie) edo -i (neskí) sortu dira.

2. Bizkai gehienean -e- dago eduki-ren adizkien orainaldiko erroan: dekot 'daukat', dekozu 'daukazu', deko 'dauka', dekogu 'daukagu', dekozue 'daukazue', dekie 'daukate'.

Kontsonanteen sailean hiru gertakari aipatuko ditut:

1. Lau txistukariak bitara ekarri dira: s eta z > s egin dira eta ts eta tz > tz. Hori dela eta, asi 'hasi/hazi', su 'su/zu', atzo 'atzo/atso', otz 'hotz/hots' esaten da.

2. Mendebaleko eremu zabalean j bokalerdiaren ondoren z > x eta tz > tx busti dira. Alde batetik, beraz, aizkora > axkora/askora, eleiza 'eliza' > elexa/elixa, goiz > gox, haize > axe, kereiza 'gerezia' > keixa, leizar 'lizar' > lexar... tankerako ahoskerak ditugu eta, bestetik, berriz, ereitzi 'iritzi' > eretxi, gaitz > gatx, haitz > atx...gisakoak. Geroago, Bizkai gehieneran i bokalak ere z busti eta x ahoskatzeko joera zabaldu da: bizi > bixi, izan/izen > ixen, gizon > gixon, dakizu > dakixu...

3. Erdal -(c)ión amaiera -(z)iño egin da: erlijiño, espropiazión, globalizaziño, inseminaziño... Era berean, -n- garatu da *-io-ren adizkietan: diñot 'diot', diño 'dio', diñozu 'diozu'...

Izenaren morfologia

Izenaren morfologian gertakari hauek aipatu behar dira:

1. Artikulu hurbilak gorde dira, gaur egun euskalki honetan ere galbidean dauden arren: hor bertan jausi da 'hor bertan erori da'.

2. Soziatiboan morfema berezia dago: -gaz singularrean eta -kaz pluralean. Beraz: alabeagaz 'alabarekin' / alabakaz 'alabekin'. Dena dela, pluraleko -kaz eremu txikiagoan erabiltzen da: Bizkaiko sartaldean eta erdigunean. Deba ibarrean, berriz, pluralean ez ezik, singularrean ere -kin erabiltzen da gehienbat.

3. Hurbiltze adlatiboan morfema berezia dago, baina aldaera desberdinak erabiltzen dira azpieuskalki bakoitzean. Sartaldean -rantza esaten da eta -rutz sartaldean: eguerdirantza/eguerdirutz 'eguerdi aldera'.

4. -rik morfema erabili ohi da etxerik etxe, kalerik kale, mendirik mendi... gisako egituretan. Instrumentala ere ezaguna da (kaminoz kamino) eta horixe indartu da azkenaldian.

5. Erakusleek erro berbera daukate singularrean eta pluralean. Hizkera askotan azentuak bereizten ditu: sing. honék 'honek' / pl. hónek 'hauek', sing. horrétan 'horretan' / pl. hórretan 'horietan'. Beste hizkera batzuetan -i- dago pluralean: sing. honetan / pl. honeitan.

6. neu saileko izenordain indartuak erabiltzen dira: neu, heu, geu, zeu, zeuek.

7. 'edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen sail osoa dago Bizkaian: edonor, edonori, edonora, edonondik, edonogaz, edozelan, edozergatik...

8. 'Izenordain galdetzailea + edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordainen sail osoa dago Bizkaian: nonor, nonori, nonora, nonondik, nonogaz, zeozelan, zeozergatik...

Aditzaren morfologia

1. NOR-NORI-NORK sailean eutsi da erroa: deustezu (> dostezu) 'didazu', deutsu (> dotsu) 'dizu'.
2. egin erroa erabat nagusitu da ahaleran, aginteran eta subjuntiboan: hartu leiket 'har dezaket', hartixu 'har ezazu', hartu daigun 'har dezagun'.
3. Arrotza da ari izan; egon eta ibili dira haren ordezekoak: alemana ikesten dago / alemana ikesten dabil 'alemana ikasten ari da'. Sortaldeko hizkera batzuetan jardun ere erabiltzen da: alemana ikasten dihardu.
4. edun-en erroan bilakaera berezia gertatu da: orainaldian -o- eta 3. pertsonetan -au- dago. Beraz: dot, dok/don, dau, dogu, dozu, dozue, daue (> dabe/daudie). Iraganaldian, berriz, -eu- dago adizki batzuetan: neuan (> neban) 'nuen', euan (> eban) 'zuen', euen (> eben/eudien) 'zuten', neuke 'nuke', leuke 'luke'...
5. NOR-NORI saileko adizkietan ere bilakaera berezia egon da: j-/y-/dx-/d- esaten da hizkeren arabera; ez z- orokorra. Dena dela, y- dago zabalduen: yat 'zait', yak/yan 'zaik/zain', yako 'zaio', yaku 'zaigu', yatzu 'zaizu', yatzue 'zaizue', yake 'zaie'.
6. NOR-NORI saileko adizkien iraganaldian ez dago zit-. Orainaldiko adizkiei iraganaldiko - (e)n gehitzen zaie: yatan 'zitzaidan', yakon 'zitzaion', yakun 'zitzaigun'...
7. Iraganaldiko 3. pertsonetan ø- da NOR argumentuaren morfema adizkirik gehienetan: eban 'zuen', euken 'zeukan/zeukaten', ekien 'zekien/zekiten', etorren 'zetorren', etozen 'zetozen'...
8. Aditzen plurala osatzeko -z morfema ia guztiz nagusitu da: dostez 'dizkit', jakoz 'zaizkio', doguz 'ditugu', dagoz 'daude', dekoz 'dauzka', leikez 'daitezke'...
9. Gaztelaniako -ado eta -idu partizipioak -au (>-a) eta -idu bilakatu dira: aluzinau/aluzina 'aluzinatu', entretenidu 'entretenu'.
10. -gi atzizkia dago partizipioetan; ez -ki orokorra: ebagi, erabagi, eralgi, esegi/eskegi 'zintzilikatu', iregi, jagi... Beste alderdi batzuetan ere izan da -gi atzizki hori. Gaur egun, esate baterako, Sakanan dago bizirik.
11. Aditz izenak egiteko aukera zabala dago. Alde batetik -ten morfema beste alderdi batzuetan baino biziago dago. Horixe erabiltzen da -a, -e, -o, -gi, -ki eta -{l, n, r}i amaiera daukaten aditzekin: botaten 'botatzen', beteten 'betetzen', jotzen 'jotzen', jagiten 'jaikitzen', eukiten 'edukitzen', ibiltzen 'ibiltzen', iminten/ipinten 'ipintzen', ekarten 'ekartzen'. Baita hiltzen 'hiltzen' ere. Beste aukera batzuk, berriz, mendebalean sortutakoak dira. Horien artean -etan da ezagunena. Gehienbat -au amaiera daukaten aditzekin erabiltzen da; maileguekin beraz: kantetan 'kantatzen', pentsetan 'pentsatzen'. Bizkai gehienean oso indartsu dago -tuten. Honako hau -tu, -atu, -itu eta -idu amaierako aditzekin erabiltzen da: apurtuten 'apurtzen', konturatuten 'konturatzen', garbituten 'garbitzen', entendiduten 'entenditzen'.
12. Aditz izena mugimenduzko aditzen osagarri izan eta helburua adierazten duenean, inesiboan erabili ohi da mendebal gehienean: ogie erosten urten dau 'ogia eroatera irten du'.

13. NOR-NORK erara jokutzen dira urten eta igon; urten dot 'atera naiz', igon dogu 'igo gara'.

Hitz eratorriak

Aldaera berezi bi daude mendebaleko atzizkien artean:

- 1.-lan da adberbioetako atzizkia mendebal gehiengan: honan 'honela', holan 'horrela', halan 'hala', zelan 'nola', edozelan 'edonola', zeozelan 'nola edo hala'...
2. -txu atzizki txikigarria zabaldu da Bizkai gehiengan: apurtxu bet 'apurtxo bat', zeozertxu 'zeozertxo'.

Sintaxia

1. 'bai/ez' erako galdera perpausen amaieran ala agertzen da, bigarren osagaia isilduta: ez zatoz, ala?
2. Antzina orokorra zen kontzesio perpausetako arren bizirik dago mendebalean: eguraldi txarra egin arren, joan egingo gara
3. Kausa eta helburu perpausetako -(z)earren berria sortu da: lagunek ikustearren urten dot kalera 'lagunak ikusteagatik irten dut kalera'
4. Perpaus osagarri jakin batzuetan -(e)na morfema erabiltzen da. Perpaus osagarrian esaten dena guztiz ziurra denean eta galdegaia ez denean erabiltzen da: danok dakigu zeu izan zaiena 'denok dakigu zeu izan zarena'
5. Denborazko perpausetan oso zabaldua dago -(k)eran Bizkai gehiengan: autopistie ordaindukeran izorrau yat txartela 'autopista ordaintzerakoan izorratu zait txartela'
6. Erakusleak izenaren aurrean jartzeko joera dago mendebal gehiengan: honek txakurronek eztau ezetarako be balio 'txakur honek ez du ezetarako ere balio' goazen horra tabernara 'goazen taberna horretara'
7. bi zenbatzailea izen sintagmaren ondoren jarri ohi da: urte bi egon da Londresen

Garatu gabeko arauak

Sistematikoak ez diren gertakariak eta dagoeneko ihartuta daudenak aipatuko ditut sail honetan.

1. Hitz jakin batzuen hasieran u- dago mendebalean eta i- gainerako euskalkietan: ule 'ile', untza 'iltze', huri 'hiri', urten 'irten', urun 'irin'...
2. Dardarkari azkarraren aurrean e > a egin da hitz jakin batzuetan: berdin > bardin, berri > barri, txerri > txarri...

3. Hitz amaieran -ain > -an egin da zenbait hitzetan: errain > erran/erren, ezpain > ezpan, gain > gan, labain > laban, zain > zan.

4. -to atzizkia dago adberbio gutxi batzuetan: ederto, polito, txarto 'gaizki'. Baita ondo eta hobeto adberbioetan ere, baina horien eremua zabalagoa da.

Lexikoa

Hitz berezi asko dago mendebalean. Nabarmentzekoak dira, batez ere, asteko egunen izenak: ilen 'astelehen' –gaur egun oso eremu txikian erabiltzen da–, martitzen 'astearte', eguazten 'asteazken', eguen 'ostegun', bariku 'ostiral', zapatu 'larunbat' eta domeka 'igande'.

Hona hemen mendebaleko beste hitz esanguratsu zenbait: amaitu 'bukatu', aratuste 'inauteri', ardi 'arkakuso', arerio 'etsai', artaziak 'guraizeak', astiro 'poliki', atzamar'hatz', behar 'lan', berakatz 'baratxuri', ei 'omen', eragin/arazo 'arazi', gabon zahar 'urtezahar', gatx 'zail', gatzatu 'mami', isiotu 'piztu', jaramon 'kasu', jausi 'erori', lapiko 'eltze', lar/larregi 'gehiegi', neba 'andrazkoaren anaia', odoloste 'odolki', txarto 'gaizki', ugaraxo 'igel', ugazaba 'jabe', zelan 'nola'...

Hitz askoren jatorria erdaran dago. Euskalki honetan oso aspaldi luzetik erabili dira ondorengoak: abade 'apaiz', amatau 'itzali', armozu 'gosari', berba 'hitz', gura 'nahi', olgau 'jolas egin', ortu 'baratze', oste 'atze/ondoren'...

Antzina orokorrak edo, behintzat, zabalduago zeuden hitzak ere gorde dira mendebalean: argal 'mehe', bekoki 'kopeta', ha 'hura', ipini 'jarri', jaurti 'bota', orri 'hosto'...

Aldaerak

Aldaeren artean ere asko dira mendebaleko bereizgarri. Hona hemen ezagunenak: ahizta 'ahizpa', ardao 'ardo', baltz 'beltz', barik 'gabe', bere (>be) 'ere', emon 'eman', ete 'ote', gaztai 'gazta', gitxi 'gutxi', guzur 'gezur', hazur 'hezur', itxi 'utzi', keixa 'gerezia', kipula 'tipula', mailuki 'marrubi', narru 'larru', txixa 'pixa'...